



**HIDROXIDO SODIO LIKIDOAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA
BEREZIEN PLEGUAREN AZALA ESPEDIENTEAREN ZK.: 3287**

Erregulazio bateratua duen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3. - Kontratuaren arduraduna:	LUIS HERNANDO GARCÍA
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Sodio hidroxido likidoa hornitzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ura tratatzeko zenbait instalazioetan. 2.- Bete beharreko premiak: Kontratu honen bitartez, BBUPk ura tratatzeko instalazioetan erabiltzeko errektibo hori eskuratu dezake. Errektiboa ur edangarria ekoizteko ur gordinari halabeharrez egin behar zaion prozesu batean erabiliko da, Gizakiek kontsumitzeko uraren kalitatearen osasun-irizpideak ezartzen dituen urtarilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretua betetzeko, eta hondakin-urak tratatzen diren instalazioetan pH-a doitzeko eta gasak garbitzeko. Kontsumo historikoetan oinarrituz, kontratuaren aldirako zenbatetsi den bolumena merkataritza-produktu horren 1.800 tona dira. 3.- Sortetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Sortetan banatu ez izanaren justifikazioa: Kontratu hau ez da sortetan banatuko aurreko paragrafoan azaldu den arrazoiarengatik. Izan ere, zenbait instalazioetan egin beharreko hornidurak izan arren, beraien artean lotuta daude, beren beharren arabera eta kalitatezko ura ekoizten dela bermatzeko, sorta posibleetako hornitzaileek produktua instalazio guztietan entregatu ahal izan beharko luketelako, eta hornitzaile ezberdinen produktua nahasteak arazoak sortu ahalko lituzkeelako. Gainera, produktuaren trazagarritasuna galdu egingo litzateke erreklamazioak eta intzidentzien ebazpenak egin behar izanez gero.
4.- CPV: 24311520-8 Sodio hidroxidoa
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa: ☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	ZAZPIEHUN ETA HOGEI MILA EURO (720.000,00 €), BEZik GABE
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 1.584.000,00 euro Horren barne dago hornitu beharreko unitate-kopuruaren % 10eko gehikuntza, eta horretarako ez da beharrezkoa izango aldaketa-espedienterik izapidetzea, SPKLren 301.2 artikulua betez. Sortak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Unitate-prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Kontratuaren aurrekontuko urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 221.13.169.12 € - 2026. urtea (2026-10-01etik 2026-12-31ra arte): 180.000,00 €, BEZa kanpo - 2027. urtea (2027-01-01etik 2027-09-30era arte): 540.000,00 €, BEZa kanpo	
5.- Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Ohikoa. Hileroko ziurtagiri bidez.	
8.-Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar.	

D.-KONTRATUAREN EPEA	
1.- Iraupen osoa:	URTEBETE (1)
2.- Epe partzialak.	☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena	☒ BAI ☐ EZ Urtebeteko (1) luzapena.
4.- Berme-epea:	Ez da aplikatu behar.
5.-Kontratua betetzeko tokia:	BBUPren instalazioak
6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak	☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:
F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA	
Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin. (720.000,00 €)	



E.- BERMEAK

- ☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

G.- GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

1. Azken hiru urteetan kontratuaren xede izan diren horniduren zerrenda justifikatzea (24311520-8 kodearen arabera, CPVko kodeen zerrendako sodio hidroxidoa), horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adierazita, baldin eta egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urtekoaren % 70 edo handiagoa bada. Hartzailea erakunde publikoa izan denean, organo eskudunak emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako hornidurak, edo bezero pribatuak emandako ziurtagiri baten bidez, edo, hala badagokio, enpresaburuaren beraren adierazpen baten bidez.
2. Kalitate-arau teknikoak betetzen direla frogatzea (UNE-EN 896:2013), substantziaren, ezpurutasunen eta azpiproduktu nagusien lagin baten analisiaren emaitzek dagokion araua betetzen dutela frogatzen duen ziurtagiri baten bidez. Hala, laborategi batek emango du hori, eta:
 - a. UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren bidez egiaztatuta izango du horrek UNE-EN arauak deskribatzen duen analisi-metodoa.
 - b. Gutxienez ura aztertzeko beste metodoren batekin egiaztatuta egotea eta eskatutako metodoak eta analisiak baliozkotuta izatea.
 - c. LJE ziurtagiria izatea (substantzia kimikoen saiakuntza ez-klinikoetan, biozidak eta REACHek arautzen dituen substantziak barne, laborategiko jardunbide egokien ziurtagiria).
3. 4.1. atalean (Ezaugarri teknikoak eta eskatutako ezpurutasun-maila, aurreko 5. apartatuan eskatutako analisian sartu ez direnak) eskatzen diren parametroetarako, bereziki, bermatutako aberastasunari dagokionez, analitika baliokide baten bidez frogatu beharko da betetzen dela.
4. Giza kontsumorako ura ekoizteko ura tratatzeko substantziei buruzko informazioa; gainera, eguneratzen edo aldatzen den guztietan emango da.
 - d. Substantziaren edo nahasketaren segurtasun-datuen fitxa osoa, REACH erregelamenduaren arabera.
 - e. Substantzia edo nahasketa erabiltzeko eskuliburua, gutxienez hauek jasoko dituenak:
 - f. Nola erabili.
 - g. Gomendatutako dosia.
 - h. Helburua.
 - i. Beste produktu edo material batzuekiko bateraezintasunak.

KONTRATUARI ATXIKI BEHARREKO BALIABIDE TEKNIKOAK ETA PERTSONALAK:

1. Adjudikaziodunak eta garraio-enpresak (garraioa azpikontratatzan bada) segurtasun-kontseilaria dutela egiaztatzen duen ziurtagiria, baita horren euskarri den dokumentazioa aurkezteko modua ere.
2. Sinatutako konpromisoa, bermatzen duena eskuragarri egongo direla bitarteko nahikoak kontratua estaltzeko BTBPren "5.4 Hornidura-erritmoa" atalean jasotako baldintzetan, eta bermatzeko, baita ere, beharrezko ADR garraio-baimenak izapidetuko direla. Horretarako, telefono-zenbaki bat eta



E.- BERMEAK

- ☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

helbide elektroniko bat emango dira eskaerak egiteko, eta funtzionatzen eta erantzuten egongo dira urteko egun guztietako 24 orduetan.

3. Sinatutako konpromisoa, dioena kontraturako gordetako bolumena urterako kalkulaturako bolumenaren % 4ren baliokidea dela.
4. Fabrikatzailea ez baldin bada, produktuaren fabrikatzaileak sinatutako konpromiso-gutun bat entregatuko da eta horren bidez bermatuko da kontratua indarrean dagoen bitartean hornidura gauzatu egingo dela.
5. Sinatutako konpromisoa, dioena premiaz eskatzen diren hornidurak 24 ordutan entregatuko direla gehienez ere eskaera egiten den unetik aurrera zenbatzen hasita.
6. Indarreko ziurtagiriak, horniduren pisua kontrolatzeko erabiliko den baskularen homologazioarenak eta kalibrazioarenak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskainitako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.

UNITATE-PREZIOEN ETA NEURKETEN ZERRENDA

PARTIDA	KOPURUA (t)	PREZIOA (€/t)	ZENBATEKOA (€)
Sodio hidroxido likidoa	1.800,00		
GUZTIRA			

Eskainitako unitate-prezioan (produktu komertzialaren tonako prezioa) salgaia BBUPren errektiboan biltegian uzteko sortzen diren gastu guztiak sartuko dira.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa



I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-klausula berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidente:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko zaio preziorik baxuena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzailari. Izan ere, egin beharreko horniduraren ezaugarriak direla-eta, adjudikatzeko irizpide erabakitzaile bakarra da.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiagoa. Berdinketak egonez gero, plantillako desgaitasuna duten langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.

b) Enpresa bakoitzaren plantillako aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.

c) Enpresa bakoitzaren plantillako emakume langileen ehuneko handiena.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat anormalki baxua izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra dagoenean, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak baino % 25 unitate gutxiago dituen.
- Bi lizitatzaille daudenean, beste eskaintzaren aldean % 20 unitate baino gutxiago dituen.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko % 10 unitatetan baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa kontuan hartuta % 10 unitate baino gehiagotan handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da % 25 unitatetik gorako beherapena.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 unitatetan baino gehiagotan txikiagoak direnak. Dena den, horien artean batezbestekoa % 10 unitatetan baino gehiagotan gaunditzen duten eskaintzak badaude,



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Ez da aplikatu behar.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

ZEHAPENAK

Honako zehapen hauek aplikatu ahal izango dira, eta berehala likidatu dira, zenbatekoa ordaintzeke dagoen lehen fakturatik kenduta, edo, hala badagokio, azken likidazioan edo eratu den behin betiko bermearen kargura.

Zigorak aplikatzeak eta ordaintzeak ez du salbuesten BBUPk eskubidea izatea kontratistari egotz dakioken ez-betetzeak eragindako kalte-galerengatik.

Ez-betetzeen kasuan, zigor hauek aplikatuko dira:

Pisaketa ez betetzeagatiko zigorrak:

BBUPk egindako pisaketa hornitzaileak adierazitakoa baino txikiagoa bada, eta bien arteko aldea ehuneko bikoia (% 2) edo handiagoa bada, desbideratze horren bikoitzaren baliokidea den zehapena aplikatuko zaio kontrolatu den entregaren zenbatekoari eta erreaktibo beraren aurreko guztiei ere bai, egindako azken kontrolatik aurrera zenbatzen hasita.

Kalitatea ez betetzeagatiko zigorrak:

Produktuaren analitikan edo jasotako analisiaren ziurtagirian/buletinean jasotako balioetako bat baldintza teknikoen pleguan ezpurutasun eta azpiproduktu nagusietarako adierazitako mugak baino handiagoa bada, zigorra aplikatuko da, kontrolatu den entregaren gaineko ehunekoan desbideraketa horren bikoitzaren baliokidea, bai kontrolatu den entregan, bai eta hornitzaile berak aurretik egin dituen guztietan ere, azken kontrolatik aurrera edo egiaztatutako laborategiaren azken analitikatik aurrera zenbatzen hasita.

Egindako analitikaren balioa BTBPn produktu kimikoaren aberastasun-mugaren kanpo badago ehuneko hirutik gora (% 3), desbideraketa horren bikoitzaren baliokidea den zehapena ezarriko da, bai kontrolatu den entregan, bai eta hornitzaile berak aurretik egin dituen guztietan ere, azken kontrolatik aurrera edo egiaztatutako laborategiaren azken analitikatik aurrera zenbatzen hasita.

Zehapenak hornidura-erritmoa urratzeagatik

Hornidura normala:

Eskaera normaletan hornidura-erritmoa urratzen bada BBUPri egotz ez dakizkiokeen kausak direla eta, BBUPren kontratuaren arduradunaren irizpideari jarraikiz, aukera egongo da hornidura horren zenbatekoaren % 25eko zehapena ezartzeko atzerapen-egun bakoitzeko, atzerapenak sortzen diren



M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

lehenengo aldi. Bigarren alditik aurrera, aplikatu ahalko den zehapena horniduraren zenbatekoaren % 50 izan ahalko da atzerapen-egun bakoitzeko eta kontratua suntsiarazteko arrazoi izan ahalko da. Gainera, fidantza galduko da sortutako kalteen konpentsazio moduan.

Premiazko hornidura:

Urteko egun guztietako 24 orduetan telefonoz edo emailaz ez erantzutea eta beharrezko epeetan premiazko hornidurak ez izapidetzea, bidaltzea edo hornitzea, BBUPren kontratuaren arduradunaren irizpideari jarraikiz, arrazoi izan ahalko da eskatutako horniduraren zenbatekoan % 50eko zehapena ezartzeko atzerapen-egun bakoitzeko eta kontratua suntsitzeko arrazoia izan ahalko da. Gainera, fidantza galduko da sortutako kalteen konpentsazio moduan.

Kasu bietan, eskatutako erreaktibo-zenbatekoak hornitu ez izanagatik BBUPk halabeharrez bere ekoizpena gelditu edo gutxitu behar baldin badu eta ur edangarria hornitzen ez bada, urak araztu gabe isurtzen badira edo gas kutsatzaileak isurtzen badira, adjudikazioduna izango da sortu ahalko diren edo berari egoztekoak zaizkion zehapenen edo isunen erantzule, bai BBUPri ezartzen bazaizkio, bai eta zuzenean enpresa adjudikaziodunari ezartzen bazaizkio ere.

Zehapenak egiaztatutako analitikak ez entregatzeagatik

Kontzeptu horrengatik ezarriko diren zehapenak baldintza teknikoen pleguan ezarritako aldiaren entregatzen ez den analitikaren kostuaren hirukoitza izango da. Kostu hori kalkulatzeko erreferentziatzat ezarri da urraketa egiten den unean AENOR Laboratorio-k analisi horretarako finkatuta duena.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatik erantzukizun-asegurua baduela.

N.- KONTRATUA ALDATZEA

Zer baldintzetan egin ahalko den

SPKLren 301.2. artikularen arabera, hornitu beharreko unitate-kopurua handitu ahal izango da, dagokion aldaketa-espedientea izapidetu beharrik gabe.

Aldaketaren irismena

Aldaketa gehienez ere urteko 72.000,00 eurokoa izango litzateke eta balio horri eragingo lioke adjudikaziodunaren eskaintzaren baja-koefizienteak.

Gehienez eragin diezaiokeen kontratuaren prezioaren ehunekoa:

Kontratuaren prezioaren % 10.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA



☒ BAI

☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak ordezkari bat izendatuko du, kontratuaren baldintzei eragiten dieten alderdi guztietan jarduteko edo enpresa ordezkatzeko gaitasun nahikoa duena.